

## MALKOAK LEHORTZEN

Leire Aranburu de La Cal, 13 urte

*Lezo*

Isiltasunean galtzen naiz gaur ere; egunero bezala, bakarrik nago nire gela ilunean. Ez ditut argiak piztu nahi, eguzkia mendi artean gordetzen doan arren, eta mugitzeak beldurra ematen dit. Dafne dut izena eta hamazazpi urte ditut.

Lehenengo hilabetean nire ahizpa istripu baten ondorioz hil egin zen, eta orduz geroztik gauzak ez doazkit batere ondo.

Bat-batean begiak ixten ditut, eta Marta nigan-dik hurbil senti dezaket. Lepoan zehar laztantzen nau, musu bat ematen dit eta elkarri begiratzen diogu. Bere aurpegiak pozik dagoela islatzen du, eta horrek arnasa sakona hartzen uzten dit. Mugitu gabe jarraitzen dut baina errealitatera itzultzen naiz, nik nahi ez izan arren. Guztiak berdin jarraitzen du: bakarrik nago etxean. Nire negarrek isiltasuna hausten dute. Ezin dut jasan! Zergatik ez ote nion Martari maite nuela erakutsi? Marta hil zenetik izugarrizko zama dut bihotzean.

Marta ni baino urte bat gazteagoa zen eta oso neska panpoxa zen arren, ez zen edonorekin joaten zen horietakoa.

Hil baino lehen lau egunez UCI-n izan eta gero, egun goibel horietako batean, bisitan joan nintzaionean, eskutik heldu eta oso maite ninduela esan zidan, ni bere idoloa izan nintzela beti, eta nire begiekin amesten zuela.

Disimulatzen saiatzen ginen arren guztiok bage-nekien Marta lehenago edo beranduago hil egingo zela. Eskuak elkarri eman genizkion momentuan belarrira zerbait esan zidan. Nik ez nion ulertu. Bere ahotsa potente eta argia izatetik ia entzun ezina eta nekatua izatera bueltatu zen. Bere begi handiak jada ezin zituen ireki ere egin eta bere ezpainak zurituz zihoazen poliki-poliki. Berak bazekien hil egingo zela, eta erabat izututa egon arren, besteoi irribarreen bitartez kontrakoa demostratzen saiatzen zen. Nik egunak eta gauak erietxean ematen nituen. Larrituta, beldurtuta eta askotan negarrez. Gurasoak nire alboan zeuden medikuek ekartzen zituzten berrien zain. Ez genuen hitz egiten, eta begirada batek guztia zioen.

Maiatzaren 4an hil zen Marta. Egun hori ez dut inoiz ahaztuko, nire bizitzako etapa berri bat markatu baitzuen, etapa ilun bat, malkoz betetako etapa triste bat.

Etapan honetan lagunek ezin izan zidaten babesik eman. Ez nien utzi. Bakartasunari lotu nintzaion goitik behera eta gurasoei ez nien laguntzen utzi. Ez nintzen konturatzen jarrera horrekin minak bere barnean jarraituko zuela eta, gainera, nik maite nituen pertsoneri min egiten niela.

Behin, negarrez igarotako gau luze horietako batean, begiak ireki nituen eta Marta nirekin ohean zegoela iruditu zitzaidan. Finko begiraten zidan. Eskutik heldu eta zorionsua izan behar nuela esan zidan, bestela amak ezin izango zuela berriz ere zorionsua izan. Gero, zerbait esaten saiatu zen, baina ez nion ulertu. Ondoren, liburu baten antzeko zerbait hartu zuen eta ongi ikusteko argia piztu nuenean bere egunerokoaz ohartu nintzen.

Martaren egunerokoa irakurtzen nuen bitartean, berarekin egongo banintz bezala sentitzen nintzen. Momentu batean nahi izan nuen begiak itxi, loak hartu eta berarekin amesten nuen bitartean mundu honetatik desagertu, arrastorik utzi gabe, jende guztia zorionsu utziz. Ametsa zoragarria zen: familia osoa geunden, elkarrekin, leku magiko batean. Martak eta biok eskuak emanak genituen eta bitartean aita masailean musuak ematen zizkigun. Amak gutaz barre egiten zuen. Momentu hartan zorionsua nintzen. Bat-batean egunerokoa eman zidan eta poliki-poliki gure eskuak askatuz joan ziren. Mundu hobe batera zihoala iruditu zitzaidan, bere aurpegiak hori isaltzen zuen behintzat. Egunerokoaren azken orrialdean honela zioen mezu bat neukan.

“Dafne maitea. Badakit nire eza sumatzen duzula momenturo, baina mesedez, ez egin negarrik. Nik zorionsu ikusi nahi zaitut berriro ere, lehen bezala, elkarrekin geundenean bezala. Amak behar zaitu, eta aita are gehiago. Baina ez zaituzte horrela ikusi behar, lehengo Dafneren moduan

baizik. Egun osoa barrez igarotzen zuen neska hori bezala. Badakit ez zarela inoiz nitaz ahaztuko, baina ez dut nahi nire oroitzapenek zu negarrarazterik, nitaz gogoratzen zarenean zoriontsu nahi zaitut. Lagunak oso arduratuta daude zure jarrera dela eta, emaezu laguntzeko aukera, ez zara damutuko. Nire egunerokoan apuntetxo batzuk dauzkat eta zure laguntza nahiko nuke norbaiti zerbait argitu diezaiozun. Maite zaitut.”

Amets horretatik esnatu nintzenean, beste pertsona bat banintz bezala esnatu nintzen. Amets bat izan arren, banekien berarekin egon nintzela eta orain askozaz lasaiago nengoen. Asken esaldian egunerokoaz zerbait esaten zuenez, arin egunerokoa irakurtzen jarri nintzen.

Ezin nuen irakurtzen nuena sinetsi! Nik bi urte neramatzan Imanolez maitemindurik, baina guztiok bagenekien Imanolek Marta maite zuela. Martak ez zidan inoiz Imanolez hitz egiten, zirudienez, laguntzat besterik ez baitzuen nahi. Egunerokoa irakurri nuenean argi ikusi nuen Martak denbora luzea zeramala Imanolez txoro-txoro eginda. Bere egunerokoan irakurri nuen paragrafo batek honela zioen behintzat:

“bihotzean zaitut beti Imanol, zu zara nire ametsetako printzea eta hori ez du ezerk aldatuko. Baina ez zara nire ametsetako printzea bakarrik, Dafnek maite zaituela badakizu. Azken bi urtetan zu bakarrik zaitu buruan. Izugarri sentitzen dut zure amodiozko gutun guztiak batekin ez erantzun izatea, bihotzez BAI erraldoi bai emango nizukeen

eta. Ziur nago zurekin ateratzen hasten banaiz, Dafnek ez didala barkatuko; horregatik, berak beste mutil bat aurkitzen duen arte itxarongo dut, baina ez etsi, mesedez, zu baitzara nire ametsak betetzen dituen eta baita nire bizitzari argia ematen diona ere.”

Guztia argi ikusi nuen. Orain triste nengoen berriro ere. Nolatan Martak Imanol maite zuela! Niregatik ezin izan zuten elkarrekin atera eta orain errudun sentitzen nintzen. Indarrak hartu eta Imanoli guztia kontatu behar nion. Hori zen Martak bidali nahi izan zidan mezua UCI-n hilzorian zegoenetik ametsetan azaldu zitzaidan arte. Martari laguntzeko prest nengoen eta horretarako Imanoli guztia kontatu behar banion, bada, aurrea. Baina nola? Beldur nintzen ez ote nuen laguntzen asmatuko.

Negarrez hasi nintzen isilean. Ama nire gelara gerturatzen ari zela sumatu eta egunerokoa berak ez ikusteko moduan ezkutatu nuen. Malkoak berriz ezin izan nituen ezkutatu. Ikusi ninduenean, bere bularraren kontra besarkatu ninduen. Begietara begiratzen zidan.

– Dafne, ezin duzu horrela jarraitu. Gaur ikaste-txetik deitu didate, azkeneko azterketara ez zara aurkeztu ere egin. Badakit Martarena... –amari malkoak irteten zitzaizkion– oso gogorra dela baina arin eramaten saiatu behar duzu. Gehiegi maite ditudan pertsonak hain triste ikusteak moralajosten dit eta ezin duzu imajinatu zer emango nukeen zure aurpegian irribarre bat ikusteagatik.

- Ama, izugarri maite zaituztet aita eta zu.
- Badakit.

Telefonoak jo zuen momentu hartan eta, ama telefonoa hartzera zihoan bitartean, malkoak lehortu nituen.

- Dafne zuretzat da! -entzun zen egongelatik.
- Banoa! Nor da?
- Olaia da.

Amak ez esan arren, bere aurpegiaren espresioan nabaritu nuen ni kalera ateratzeak poztu egingo zuela.

- Kaixo Olaia.
- Kaixo aspaldiko! Zer moduz zabilta? -galdetu zidan Olaiak.
- Ondo, beno, badakizu...
- Ea gaur kalera irteten zaren e? ezin didazu ezetz esan!
- Beno ongi da!
- Gainera, ongi etorriko zaizu kalera ateratzea -gaineratu zuen Olaiak-; hamar minututan parkean, ongi?
- Bai ongi.
- Orain arte orduan -esan zidan agurtzeko.

Amak harrituta begiratu eta masailean musu bat eman zidan.

Kalean nengoen eta jendea leku guztietatik ikusten nuen arren, bakarrik sentitzen nintzen. Eguzkiko betaurrekoak jarri nituen, ekaineko eguzkiak ez baitzidan begiak irekitzen uzten, eta parkera iristen ari nintzela nik oso ongi ezagutzen nuen ahots batek deitzen zidala ohartu nintzen.

– Dafne! Dafne! Nora zoaz horrelako presarekin! -Imanol zen.

– Kaixo! Ba hemen...- ez nekien zer esan eta egora hartan ikusi ninduenean bere aurpegia zeharo aldatu zen.- Olaiarekin geratu naiz!

– Zer moduz zaude? -galdetu zidan tonu sentikorrean.

– Beno! Aurrera noa! Eta zu? Zer moduz doakizu bizitza! Aspaldian ez dugula hitz egiten!- bat-batean urduritasuna joana zitzaidan. Berriz ere Imanolen aurpegia aldatu egin zen, oraingoan hoberako. Begietara begiratu nion betaurrekoak kentzen nituen bitartean; nire sabelean tximeletak hegan egin zuten. Isiltasuna sumatu zen momentu hartan, tristuraz eta argiz betetako isiltasuna. Biok berdina pentsatzen genuen. Ez genekien batak besteari zer galdetu eta beldurra ematen zigan biontzat hain sentibera zen gaia ateratzea: Marta.

– Mira irizten dizut denboraldi honetan. Ustedut elkar ikusi beharko genukeela, gure gauzez hitz egiteko, zuri ondo iruditzen bazaizu bahintzat...

– Oso ongi iruditzen zait- moztu nion apal- gainera, badut zuri interesatuko zaizun zerbait.- bere aurpegian iribarre bat marraztu zen,

– Bihar jaisteko asmoa duzu?

– Ez dakit...- dudan nengoen ez al zen goizegi Martaren egunerokoaren kontatzeko! Baina ezin nuen aukera hori galdu- bale. Bostetan ongi?

– Bai. Ezagutzen dudan taberna batera eramango zaitut. Zer iruditzen zaizu?

– Ongi. Beno, orduan bihar arte, ez?

– Bai, benetan pozten naiz zu berriro ikusteaz, Dafne.- gaineratu zuen- Agur.

Bakoitzak gure bidea jarraitu genuen eta Olaia nire zain ikusi nuen urrunean.

Olaiarekin ondo egon nintzen. Gauza askori buruz hitz egin genuen, baina batez ere Martari buruz. Berak zioen bizitzak aurrera jarraitzen zuela, denbora ez zela gelditu eta denbora aprobetxatu behar nuela lehengoa izaten. Arrazoia zeukan. Bizitzak aurrera jarraitzen zuen, baina Martak eramana zuen nire bihotzaren zati bat berarekin eta hutsune hori ez nekien nola bete.

Hurrengo egunean bost eta erdiak ziren eta taberna batean nengoen Imanolekin. Imanol bi freskagarri eskatzera altxa zen momentua Martaren egunerokoa ateratzeko aprobetxatu nuen. Imanol bi freskagarrirekin mahaira itzuli zen.

– Hemen duzu eskatutakoa!

– Eskerrik asko.

Mahaian eseriz joan ahala, geroz eta harritu aurpegi handiagoarekin begiratzen zuen egunerokoa. Nik Martak beraz idatzitako paragrafoa bilatu nuen eta irakurtzeko keinua egin nion. Arreta handiarekin egunerokoa hartu eta irakurtzen hasi zen. Lehen esaldia irakurri zuenerako ni komunera joana nintzen. Ezin nuen lotsa jasan! Hura zen egoera! Ez nekien berak nola erreakzionatuko zuen. Nire hankek eta eskuek ezin zioten dardara egiteari utzi. Hamar mila ideia neuzkan buruan eta



gauza bat bakarrik argi: egoera horri aurre egin behar nion. Martak eskatu zidalako. Komunikatara, arnasa sakon hartu eta mahaian eseri nintzen. Ez zion egunerokoari begirik kentzen. Bere begiek negar egin zuela antzematen zuten.

Bat-batean begiratu egin zidan.

– Sentitzen dut Imanol, nik atzo arte ez nuen honen berri eduki eta iruditu zait zuk jakin behar zenuela.

– Ez zara ezeren errudun sentitu behar. Eskutitz honetan Martak nirekiko maitasuna adierazten du, baina baita ere zurekiko aprezio ikaragarria. Badakizu oso maite zintuela–. Hitz horiek entzuteak lasaitasun ikaragarria eman zidan–. Baina, hala ere, eguneroko hau jada ez da gehien interesatzen zaidan egunerokoa–, nik begietara begiratu nion urduri zer esan nahi zuen horrekin! Ez nuen ezer ulertzen–. Momentu honetan interesatzen zaidan eguneroko bakarra zurea da, Dafne.

Gorri-gorri jarri nintzen. Ez nekien zer egin eta berriz ere dardarka nengoen. Imanol bere aulkitik jaiki eta nire ondoan zegoen aulkian eseri zen. Eskutik heldu zidan eta elkarri begiratu genion. Nahigabe bezala, gure ezpaineak bat egin zuten ezti zaporedun musu epel bat sortuz. Momentu hartan ez nekien musu horrekin jarraitzea ongi zegoen, baina nire bihotzari kasu egin nion.

Ezti zaporedun musu epel hark nire bizitzako etapa berri bati eman zion hasiera, argiz betetako etapa bati, amodioz betetako etapa bati; egia esanda, malkorik gabeko etapa bati.